Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4629

AGINDUA, 2009ko uztailaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2009-2010 ikasturterako Euskal Girotze Egonaldien (EGE) laguntza-deialdia egiten duena.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoak, honela dio bere 17. atalean:

«Jaurlaritzak, ikasleei nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantza emateko xedezko neurriak hartu eta euskeragiroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzabideetan eta arduralaritzako ihardun eta agirietan euskara agizko adierazpide eginez.»

Ildo beretik, 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak, bere 12. atalean, zera dio:

«Hezkuntza eta Kultura Sailak beharrezko neurriak hartuko ditu euskararen erabilera eskolagiroan bermatzeko, klase barruan nahiz klasez kanpoko ekintzetan ohiko adierazpide bihurtuz.»

Lege-Agindu hauek oinarritzat hartuz eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle askok, eskolan euskara ikasi arren, eskolatik kanpora giro euskalduna ezagutzeko eta bizitzeko aukerarik ez dutela ikusirik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskal Girotze Barnetegiak eratzea erabaki zuen 1985eko ekainaren 17ko Aginduz (19ko EHAA). Esperientzia hori sendotu ondoren, maiatzaren 29ko 147/1990 Dekretuak barnetegien sorrera eta jardute-modua arautu zuen. Dagozkion Aginduen bidez bost Euskal Girotze Barnetegi sortu dira dagoeneko.

Euskal Girotze Barnetegi hauetarako dagoen eskaeraren zati ohargarri bati ezin izaten zaio erantzunik eman, bertaratu eta esperientziaren onurak eskuratzeko. Euskal Girotze Barnetegien helburu berberekin egonaldiak egiteko premia nabaria ikusten da ikastetxeetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharbeharrezko jotzen du egonaldi-irteera horiek sustatzea eta diruz laguntzea. Gauza jakina da, Euskal Girotze Barnetegien esperientzian oinarrituz, antolamenduan, programakuntzan eta giza nahiz material baliabideetan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4629

ORDEN de 8 de julio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para Estancias de Afianzamiento Idiomático para el curso 2009-2010.

La Ley Básica 10/1982 de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, en su artículo 17, dispone lo siguiente:

«El Gobierno adoptará aquellas medidas encaminadas a garantizar al alumnado la posibilidad real, en igualdad de condiciones, de poseer un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales al finalizar los estudios de enseñanza obligatoria y asegurará el uso ambiental del euskera, haciendo del mismo un vehículo de expresión normal, tanto en las actividades internas como externas y en las actuaciones y documentos administrativos.»

Así mismo, el artículo 12 de la Orden de 1 de agosto de 1983 dispone que:

«El Departamento de Educación y Cultura adoptará las medidas oportunas a fin de garantizar el uso ambiental del euskera, haciendo del mismo un vehículo de expresión normal, tanto en las actividades docentes como extra docentes en el ámbito educativo.»

En base a la Ley y Orden mencionados, y ante la evidencia de que muchos alumnos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aun cursando euskera en la escuela, fuera del horario lectivo carecen de oportunidades para desenvolverse y vivir en ambientes euskaldunes, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación acordó, por Orden de 17 de junio de 1985 (BOPV del 19), la creación de los Centros de Afianzamiento Idiomático. Una vez consolidada la experiencia, el Decreto 147/1990 de 29 de mayo reguló la creación y el funcionamiento de los centros. Hasta la fecha se han creado, por medio de las correspondientes órdenes, cinco Centros de Afianzamiento Idiomático.

Estos Centros de Afianzamiento se ven imposibilitados para atender a gran parte de la demanda y, en consecuencia, muchos solicitantes no pueden disfrutar de los beneficios de la experiencia. Ante la manifiesta necesidad de realizar estancias con los mismos objetivos de los Centros de Afianzamiento Idiomático, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación considera imprescindible la promoción de ese tipo de estancias, así como la concesión de subvenciones a las mismas. Resulta evidente que, basándonos en la expe-

oinarrizko baldintzak betetzen badira, egonaldi horiek emaitza hobeak izaten dituztela.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra: 2009-2010 ikasturteko Euskal Girotze Egonaldien laguntza-deialdia onartzea, Agindu honen eranskinean zehazten diren oinarri-arauen arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Oinarri-arauek jardunbide kontuan begiz jo gabeko orotarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak dioena hartuko da oinarri.

Bigarrena.– Bide administratiboa agortzen duen Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar liteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenean, dagokion aretoan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak deialdi hau mamitzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Laugarrena.– Agindu hau EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengoan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

riencia de los Centros de Afianzamiento Idiomático, el resultado de las estancias mejora si se cumplen los requisitos básicos en lo referente a organización, programación y a los recursos tanto humanos como materiales.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar la convocatoria de ayudas para Estancias de Afianzamiento Idiomático para el curso 2009-2010, con arreglo a las bases reguladoras especificadas en el anexo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto por las bases en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición, ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del siguiente a su publicación en el BOPV. Así mismo, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir de la fecha señalada.

Tercera.– La Dirección de Innovación Educativa tomará las medidas necesarias para la correcta ejecución de la presente convocatoria.

Cuarta.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA

OINARRI-ARAUAK
ZER ETA NORI ZUZENDUA

1.– Euskal Girotze Egonaldien (EGE) laguntza-deia egiten da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko aurrekontuetatik 220.000,00 euroko dirupartida erabiliko da. Diru-zenbateko hori aldatu egin daiteke, eskaeren guztirako zenbatekoa kontuan hartuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste dirulaguntza programetan erabili gabe geratzen diren diruak erabiliz, betiere azken hauen erabakiak hartu aurretik. Horrelakoetan, Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak horren berri emango du.

2.– Deialdi honek 2009-2010 ikasturtean zehar burutzekoak diren egonaldiak hartuko ditu kontuan.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei zuzenduak dira laguntza hauek, A, B eta D ereduko ikasgelen egonaldietarako.

A ereduko ikastetxeen kasuan, ahalegin berezia egingo da, programa hau indartzeko eta bertako ikasleria euskarara gerturatzeko.

Eskatzaileek zabalik baldin badute Herri Administrazioek emandako antzeko laguntzaren bat itzultzeko espedienterik edo zigor-agiririk, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntza eman eta ordaindu ahal izateko.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko legearen testu bateratuaren 50. artikuluko 5. paragrafoan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean daudenak. Honen haritik, Lege horrek aipatu artikuluan ezarritako arrazoiren baten eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du eskatzaileak.

EGONALDI-IKASGELEN
EZAUGARRIAK

4.– Euskararen erabilera indartzeko eta hobetzeko propio prestatutako egonaldiek dute lekua deialdi honetan.

5.– Deialdi honetatik laguntza jaso ahal izateko, ikasgela osoak joan beharko du egonaldira.

6.– Ikasgelaren ardura bere ohiko irakasle euskaldun batek izango du, ahal delarik ikasgelaren euskara-irakas-

ANEXO

BASES REGULADORAS
OBJETO Y DESTINATARIOS DE LAS AYUDAS

1.– Se convocan ayudas para Estancias de Afianzamiento Idiomático. La partida destinada a dichas ayudas asciende a 220.000,00 euros, con cargo a los presupuestos de la Comunidad Autónoma Vasca para el año 2009. Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Educación.

2.– La presente convocatoria tomará en consideración las estancias a realizar durante el curso 2009-2010.

3.– Pueden solicitar ayudas de esta convocatoria los centros de enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma Vasca, para estancias de aulas de los modelos A, B o D.

Se hará un esfuerzo especial para reforzar este programa en los centros de modelo A, y acercar, así, al alumnado de dichos centros a actividades promotoras del euskara.

En caso de hallarse incurso en cualquier procedimiento sancionador o de reintegro iniciado en el marco de ayudas de la misma naturaleza, la concesión y abono de la ayuda estará condicionada a la terminación de dicho procedimiento.

No podrán concurrir a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incursos en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. A este respecto, los solicitantes deberán presentar una declaración jurada en la que certifiquen que no se encuentran en ninguna de las causas descritas en el citado artículo.

CARACTERÍSTICAS DE LAS
AULAS Y DE LAS ESTANCIAS

4.– Esta convocatoria está dirigida a las estancias organizadas específicamente para potenciar y mejorar el uso del euskera.

5.– Para poder acceder a las ayudas de esta convocatoria es necesario que a la estancia acuda la totalidad de la clase.

6.– El responsable del aula será un profesor habitual, vasco-parlante, preferentemente el profesor de euskera

leak edo tutoreak, eta egonaldi osoa egingo du ikasleekin.

7.– Ikastetxeak egonaldi berera ikasgela bat baino gehiago eramatea proposa dezake.

8.– Egonaldiari behar den etekina atera ahal izateko eta lanerako azpitaldeak egin ahal izateko, honako gutxienezko irakasle/ikasle ratioak ezartzen dira:

15 ikasle edo gutxiago dituzten ikasgelentzat irakasle bat.

16 eta 29 ikasle bitartean dituztenentzat 2 irakasle.

30 ikasle edo gehiago dituzten ikasgelentzat 3 irakasle.

9.– Ratio horietan adierazitako irakasleetatik lehena 6. atalean zehaztutako irakaslea izango da. Bigarrena, hirugarrena eta hortik aurrerakoak, behar balira, egoitzak berak eskainitako edo ikastetxeak berak kontrataturiko irakasle-monitoreak izan daitezke. Irakasle-monitore hauen gaitasuna (ikasketa-titulazioak, euskarazko gaitasun-agiriak, atsedenaldiko monitore-prestakuntza) kontuan hartuko da proiektua baloratzerakoan.

10.– Egonaldiaren iraupena: gutxienez bi gau.

11.– Euskararen erabilera indartzeko eta hobetzeko programak aurrera eramateko baldintza egokiak dituzten aterpetxe eta egoitzetan egin behar dira egonaldiak. Ikastetxea da hortaz, egoitza aukeratu, egokitzat jo eta kontratatzen duena. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez du bere gain hartzen egokitasun aukera honen ardura.

Aterpetxe edo egoitza hauek Euskal Autonomia Erkidegoan edo, Euskal kultura edo hizkuntza bizirik dauden beste edozein lurraldetan egon behar dute.

12.– Aurreko ikasturtean Euskal Girotze Barnetegi baterako eskabidea egin, txanda lortu eta uko egin duten ikastetxeek ez dute laguntzarik izango deialdi honetan.

13.– Deialdi honek ez du diruz lagunduko Euskal Girotze Barnetegi batean txanda lortu eta berau diruz laguntzeko eskaera denean.

ESKABIDEAK

14.– Eskabideak egiteko Agindu honen amaieran azaltzen den inprimakia erabiliko da, egoitza-etxeak egindako aurrekontuaz lagundua. Aurrekontu honek egonaldiaren datak eta egun kopurua, egoiliar-kopurua, eguneko eta egoiliarreko prezioa eta guztirako zenbatekoa azalduko ditu.

o el tutor, quien permanecerá con los alumnos durante toda la estancia.

7.– El centro podrá proponer la asistencia de más de un aula a la misma estancia.

8.– A fin de obtener la mayor rentabilidad posible a la estancia y de posibilitar la distribución de los alumnos en subgrupos de trabajo, se establecen los siguientes ratios mínimos profesor/alumno:

Un profesor para las aulas de hasta 15 alumnos.

Dos profesores para las aulas de entre 16 y 29 alumnos.

Tres profesores para las aulas de 30 o más alumnos.

9.– El primero de los profesores mencionados en la base anterior será el profesor especificado en el punto 6. El segundo, el tercero y siguientes, en su caso, podrán ser profesores-monitores contratados por el propio centro o propuestos por la residencia. En la valoración del proyecto se considerará la capacitación de los profesores-monitores (títulos académicos, certificados de aptitud de conocimiento del euskera, preparación como monitor de tiempo libre).

10.– Duración de la estancia: dos noches mínimo.

11.– Las estancias se llevarán a cabo en albergues y residencias que dispongan de las condiciones adecuadas para el desarrollo de los programas de potenciación y mejora del euskera. Es el centro el encargado de elegir la residencia, de determinar si es adecuada y de contratarla. Por tanto, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación no se responsabiliza de la adecuación de la opción elegida.

Dichos albergues y residencias deberán estar situados en la Comunidad Autónoma del País Vasco o en cualquier otro territorio en que se mantengan vivas la lengua y la cultura vascas.

12.– Aquellos centros que en el curso escolar anterior hubieran presentado solicitud para un Centro de Afianzamiento Idiomático y habiendo logrado plaza hubieran renunciado a la misma, no percibirán ayuda alguna en la presente convocatoria.

13.– La presente convocatoria no subvencionará las solicitudes que hayan obtenido estancia en un Centro de Afianzamiento Idiomático y que soliciten la subvención de la misma.

SOLICITUDES

14.– Las solicitudes se harán de acuerdo con el impreso anexo a la presente Orden, al que se adjuntará el presupuesto elaborado por la residencia. En el presupuesto se detallarán las fechas y días de estancia, el número de residentes, el precio por día y residente, y el importe total resultante.

15.– Eskabide-orriko proiektu pedagogikoaren atala betetzeko orduan, ikastetxeek Euskal Girotze Barnetegien aholkua eta laguntza eska dezakete, honako helbide-telefono hauetan:

Alkiza: Erretore-etxea. 20494 Alkiza (Gipuzkoa). Tf.: 943 69 20 64.

Plentzia: Plentziako aterpetxea. Marinel kalea z/g. 48620 Plentzia (Bizkaia) Tf.: 94 677 42 74.

Barria: Barriako aterpe-etxea. 01208 Barria (Araba) Tf.: 945 317131.

Elgoibar: Aubixa baserria. S. Pedro auzoa. 20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tf.: 943 74 43 40.

Segura: Segurako aterpe-etxea. 20214 Segura (Gipuzkoa) Tf: 943 80 21 82.

16.– Ikastetxe bakoitzak Euskal Girotze Egonaldietarako eskabide bakar bat aurkez dezake. Eskabideak ikasgela bat edo gehiago har ditzake bere barnean.

17.– Eskabideak egiteko epea 2009ko irailaren 1a eta 2009ko urriaren 2a artekoa, egun biak barne, izango da.

18.– Eskabide-orria Hezkuntza Ordezkaritzan aurkeztu behar da. Bestela, postan gutun-azal irekian aurkeztuko da ziurtatzera, zigilua eta data eskabideari berari ezarri ahal izateko, eta honako helbide honetara bidaliko da: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (NOLEGA atala). Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz; halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezartzen den edozein administrazio-gunetan aurkeztu ahal izango da.

Administrazioan jasotako eskabidean hutsune edo osatu beharren bat sumatuko balitz, horren berri emango zaio eskatzaileari eta 10 eguneko epea emango zaio eskabidea osa dezan. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu, bere eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

IKASGELENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA (EGE-MALETA)

19.– Euskal Girotze Barnetegietan, azken urte hauetan, lanketa berezia egiten ari dira, horrelako egonaldiak egiten dituzten irakasleek material erabilgarria eta osagarria izan dezaten. Material honen bidez irakasle horiek egonaldia programatzerakoan eta gauzatzeko orduan hartu behar izaten duten gainkarga arintzea du helburu. Deialdi honetara biltzeko asmoa duten ikasgelei material honetaz baliatzeko aukera eskaintzen zaie. Horretarako, eskabide-orrian, dagokion lekuan, horren

15.– A la hora de cumplimentar el capítulo de la solicitud referente al proyecto pedagógico, los centros podrán solicitar el asesoramiento y la asistencia de los Centros de Afianzamiento Idiomático en los siguientes teléfonos y direcciones:

Erretore etxea. 20494 Alkiza (Gipuzkoa). Tel.: 943 69 20 64.

Albergue de Plentzia. C/ Marinel, s/n. 48620 Plentzia (Bizkaia) Tf.: 94 677 42 74.

Albergue de Barria. 01208 Barria (Álava). Tf.: 945 31 71 31.

Elgoibar: Aubixa baserria. B. S. Pedro. 20870 Elgoibar (Gipuzkoa). Tf.: 943 74 43 40.

Segura: Albergue de Segura. 20214 Segura (Gipuzkoa). Tf.: 943 80 21 82.

16.– Cada centro puede presentar una única solicitud para las Estancias de Afianzamiento Idiomático. La solicitud podrá incluir una o más aulas.

17.– El plazo de presentación de las solicitudes comenzará el 1 de septiembre de 2009 y finalizará el 2 de octubre de 2009, ambos inclusive.

18.– El impreso de solicitud se presentará en la Delegación Territorial de Educación. o, en su caso, se enviará dentro de ese mismo plazo por correo; en este caso el impreso de solicitud deberá ser presentado en la oficina de correos para su certificado en sobre abierto, a fin de que sea sellado y fechado, y se enviará a la siguiente dirección: Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Sección Nolega). Calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Asimismo, podrá ser entregado en cualquiera de las dependencias administrativas establecidas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En caso de detectar alguna omisión o inexactitud en la solicitud recibida por la Administración, se le comunicará al interesado/a y se le concederá un plazo de 10 días para subsanarlo. Si en dicho plazo no tiene lugar la subsanación solicitada, la solicitud se entenderá denegada, previa resolución según lo establecido en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

OFERTAS ESPECIALES PARA AULAS (EGE-MALETA)

19.– Los Centros de Afianzamiento Idiomático han realizado en los últimos años una gran labor con el fin de que los profesores de las estancias dispongan de material manejable y complementario. Con ello se consigue mitigar la sobrecarga con la que se encuentran los profesores a la hora de programar y ejecutar la estancia. Las aulas que tengan la intención de acogerse a esta convocatoria podrán hacer uso de este material, por lo que se deberá indicar en la casilla correspondiente de

adierazpena egin behar du ikastetxeak. Hauen kasuan, oso da garrantzitsua egonaldiaren datak ondo zehaztea. Aukera erabili nahi duten ikastetxeak bilera berezi batera deituko ditu Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak eta bertan azalduko zaie materiala nola erabili. Egonaldia, ikasturteko lehen hiruhilabetean egin nahi duenak, azalpen-bileraren zain egon gabe, informazioa eta maleta bera jaso ahal izango ditu Euskal Girotze Barnetegietako koordinatzaileak duen 94 302 29 43 telefono zenbakira deituta. Kasu hauetan, guztietan, egonaldia egiteko egoitza ikastetxeak topatu eta bere kasa hitzartu behar du.

ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA ZENBATEKOAK FINKATZEKOAK

20.– Baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztiak dira diru-laguntzen onuradun. Eskabideak aztertu eta laguntza-proposamenak egiteko, honako kide hauez osaturiko batzordea izendatuko du Hezkuntza sailburuordeak:

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo berak izenda dezan ordezkoa.

Euskal Girotze Barnetegien 2 ordezkari.

Berritzeguneetako Hizkuntza Normalkuntzako 2 teknikari.

Kultura Saileko ordezkaria.

NOLEGA ataleko 2 teknikari.

21.– Ikastetxeak helburu honetarako jasotako laguntzen baturak ezin ezingo du egoitza-gastuaren % 100a gainditu. Eskabidean aitorpen espresua eskatuko zaio ikastetxeari horretarako. Bestalde, ikastetxe bakoitzeko 2.103,00 euroko muga ezartzen da deialdi honetan eta esleitutako diru-laguntzak ez du sekula eskatutakoa gaindituko.

22.– Jasotako eskabideei aurreko atalean ezarritako zenbatekoetan erantzuteko diru-ahalmenik ez bada batzordeak jarritako puntuazioetan oinarrituz hainbanatuko dira laguntzak. Horretarako, batzordeak, eskabideak aztertu eta laguntza-proposamenak egiteko, ondoren aipatzen diren irizpideak erabiliko ditu:

22.1.– Oinarrizko adierazle gisa ume-gau kopurua hartuko da (UGK). Adierazle honi ondoko eragiketa egingo zaio UGK x 12: 350.

22.2.– Oinarrizko puntuazioa zehaztuko da. Puntuazio honek bi adierazle hartuko ditu kontuan eta hauen batuketa egingo du. Adierazle hauetako bakoitzak oinarri gisa ume-gau kopurua hartuko du, eta biderkatzaile gisa graduazioa ezarriko dio, beti ere gehienez oinarri hori bikoiztuz:

a) (EGE) Egonaldirako ikastetxeak erabilera bultzatzeko propio diseinatutako: 3 plana eta materiala du. EGE maletaren eskaera egiteak ikastetxearen plan gisara hartuko da.

la instancia de solicitud. En tal caso, es muy importante concretar las fechas de la estancia. Los centros que deseen valerse de esta opción serán convocados a una reunión extraordinaria donde se les explicará cómo hacer uso del material. Los centros que quieran realizarlo durante el primer trimestre del curso podrán recibir dicha información y la maleta, sin esperar a la reunión explicativa, llamando al coordinador de los Centros de Afianzamiento Idiomático al siguiente número de teléfono: 943 02 29 43. Serán los centros docentes quieres se encarguen de dar con la residencia y convengan las condiciones de estancia.

CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN Y DE DETERMINACIÓN DE LAS AYUDAS

20.– Serán beneficiarios de las ayudas todos aquellos centros que cumplan los requisitos. Para examinar las solicitudes y realizar las propuestas de subvención, el Viceconsejero de Educación nombrará una comisión compuesta por los siguientes miembros:

El Director de Innovación Educativa o la persona que él designe.

Dos representantes de los Centros de Afianzamiento Idiomático.

Dos Técnicos de Normalización Lingüística de los Berritzegunes.

Un representante del Departamento de Cultura.

Dos técnicos de la sección Nolega.

21.– El total de la ayuda no superará el 100% de los gastos de estancia. Por ello, en la solicitud se le exigirá al centro una declaración expresa. Por otro lado, en esta convocatoria se establece un límite máximo de 2.103,00 euros por centro, límite que en ningún caso podrá ser superado por las subvenciones concedidas.

22.– En caso de que no se cuente con disponibilidad económica suficiente para hacer frente a las cantidades establecidas en el punto anterior, las ayudas se prorratearán en base a las puntuaciones dadas por la comisión. A la hora de examinar las solicitudes y realizar la propuesta de ayudas, la Comisión se atendrá a los siguientes criterios:

22.1.– Se tendrá por indicador básico el número de niños-noche (NNN). A dicho indicador se le aplicará la siguiente operación: NNN x 12: 350.

22.2.– Se determinará la puntuación básica. Dicha puntuación tendrá en cuenta tres indicadores, y constituirá la suma de los tres: cada indicador tomará como base el número de niños y noches, y le aplicará como multiplicador la graduación, duplicando, como máximo, dicha base.

a) (EGE) El centro cuenta con material y un plan especialmente diseñado para impulsar el uso durante la estancia. La solicitud de la maleta EGE se considerará plan del centro: 3.

Ikastetxea beste Erakunde edo Elkarte batek antolatutako egonaldi 1 batera atxiki da.

b) (EGB) Euskal Girotze Barnetegiekiko egoera. Hau da, eskaera egina duen eta zein erantzun maila izan duen.

Ikastetxeak ez zuen eskatu: 0.

Ikastetxeari txanda eman zaio baina talde honi, eskatu arren, ez: 1.

Ikastetxeak eskatu zuen baina ez zitzaion txandarik egokitu: 2.

Oinarrizko Puntuazio hau (OP) eskabidearen balorazio osoaren % 78 izango da gehienez eta hau da osatzeko formula:

OP= ((UGK x 12: 350)+6) x EGE + (UGK x 12: 350) x EGB

22.3.– Oinarrizko puntuazio laguntza honi lau gehigarri hauek gehituko zaizkio:

a) (HN) Ulibarri programan egoteak % 8ko igoera ekarriko dio balorazio osoari.

b) (M) Mailari dagokiona. HH, LMH, DBH eta BBB mailan egotea berezitu egingo da. HHkoak % 1 lortuko du, LMHkoak % 2, DBHkoak % 3 eta BBBkoak % 4.

Ikastetxe batek hainbat mailatako taldeak aurkeztuz gero maila gorena duen taldeari dagokion indizea ezarriko da.

c) (A indartua) Taldea A eredukoa bada eta euskararen erabilera indartzeko proiektua badu gehigarri hau aplikatuko zaio. Gehigarri honek balorazio osoari % 4ko igoera ekarriko dio gehienez.

d) (AU) Aurrekontua. Proposatzen diren ekimenen aurrekontu onartuak aztertzen dira gehigarri hau finkatzeko. Batzordeak eskabidea aztertu eta hiru aurrekontu tramoetariko batean (AUTan) finkatuko du ikastetxea. Garraio, monitore eta material gastuak 800,00 eurotik beherakoak badira guztira 1. tramoan finkatuko da eta % 2 lortuko du. 800,00 euro eta 2.000,00 euro bitartean 2.enean eta % 3,5 lortuko du; 2.001,00 euro eta 3.500,00 euro bitartean 3.enean eta % 4,5 lortuko du, eta 3.500 eurotik gora 4.enean eta % 6 lortuko du.

22.4.– Laguntzaren zehaztapena.

Oinarrizko puntuazioari lau gehigarriak batzetik lortzen dugu ikastetxeari dagokion puntuazioa (P).

P = OP + HN+M+AI + AU

Aipatu bidea aplikatu ondoren, dagoen diru-kopuruaren hainbanaketa egingo da diru-laguntza (D) finkatzeko. Ondoko formula erabiliko da:

El centro se ha adherido a una estancia organizada por otra institución o asociación: 1.

b) (CAI) La situación respecto a los centros de afianzamiento idiomático. Es decir, si la solicitud está realizada y en qué situación se encuentra.

No solicitada por el centro: 0.

Al centro se le ha concedido la estancia, pero a este grupo no, aun habiéndola solicitado: 1.

Solicitada por el centro, pero no le correspondió ninguna estancia: 2.

Dicha puntuación básica (PB) constituirá como máximo el 78% del total de la valoración de la solicitud, siendo la fórmula la siguiente:

PB = (NNN x 12: 359)+6) x EAI + (NNN x 12: 350) x CAI

22.3.– Esta puntuación básica estará sujeta a cuatro graduadores.

a) (HN) El Programa Ulibarri supondrá un incremento del 8% del valor total de la PB.

b) (M) El correspondiente al Nivel. Se diferenciará el estar en los niveles de EI, EP, ESO y BUP. EI supondrá un incremento del 1%, EP, del 2%, ESO, 3% y BUP, 4%.

Si un centro presenta grupos de diferentes niveles, se aplicará el índice correspondiente al grupo que tenga nivel superior.

c) (A reforzado) Si el grupo es del modelo A y tiene un plan de refuerzo del euskera, para utilizarlo también de forma vehicular, se aplicará este incremento. Este complemento comportará un incremento del 4% como máximo.

d) (PR) Presupuesto. Para la determinación de este complemento se examinan los presupuestos aprobados de las iniciativas propuestas. La Comisión, una vez analizadas las propuestas, fijará los centros en tres tramos presupuestarios (TPR). Si los gastos de transporte, monitor y materiales no superan los 800,00 euros, a los centros les corresponderá el primer tramo y conseguirán un 2%. en cuanto a los gastos de entre 800,00 euros y 2.000,00 euros, el segundo tramo y un 3,5%; si dichos gastos están entre 2.001,00 y 3,500,00 euros, les corresponderá el tercer tramo y un 4,5%; finalmente, si los gastos superan los 3.500,00 euros, a los centros les corresponderá el cuarto tramo y un 6%.

22.4.– Determinación de la ayuda.

Logramos la puntuación que le corresponde al centro sumando los cuatro incrementos a la puntuación básica (P).

P = PB + HN+M+AR + PR

Una vez aplicado el procedimiento indicado, se procederá al prorrateo de la cantidad disponible para la determinación de la subvención (S). Se utilizará la siguiente fórmula:

D = P x 220.000,00

P

EBAZPENA

23.– Batzordeak laguntza-deialdiaren ebazpen-proposamena eta Batzordearen akta helaraziko dizkio Hezkuntza sailburuordeari, eta honek dagokion Ebazpena hartu eta EHAAn jakinaraziko du 2009ko abenduaren 4a baino lehen, jasotzaileen zerrenda eta zenbatekoak eta ez onartuen zerrenda eta zergatiak adieraziz.

Aipaturiko epean berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskabidea ez dela aintzakotzat hartu ulertuko da. Aginpidedun organoak, dena dela, eskatutako laguntzari buruzko berariazko ebazpena emateko betebeharra du.

Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea agortzen eta bere aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean, argitaratu eta hilabeteko epean.

ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

24.– Aurretiazko izaera duen ordainketa bakarrean gauzatuko da ordainketa eta Ebazpena argitaratu ondoren jarriko da tramitean. Diru-laguntza ematearen jakinarazpena jasotzen den egunetik hasi eta hamar eguneko epean ikastetxe onuradunek diru-laguntzari espresuki ez badiote ukorik egiten, diru-laguntza onartutzat joko da.

25.– Laguntza jasotzen duten ikastetxeek, 2010eko ekainaren 30a baino lehen, honako hauek bidali beharko dituzte behean zehazten den helbidera, edota, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezartzen den edozein administrazio-gunetan aurkeztu:

a) Euskal Girotze Egonaldien berri ematen duen galdekizuna, balorazioa eta emaitzak azalduz (laguntza jakinaraztearekin batera ikastetxeei bidaliko zaien inprimaki-eredua betez).

b) Egonaldia(k) egin d(ir)en egoitza etxe(ar)en jatorrizko faktura(k) edo horien konpultsatutako kopiak. Herri-ikastetxeen kasuan, inprimaki-eredua nahikoa izango da eta fakturak ikastetxean geratuko dira, ekonomi kontrola daramaten administrazio-organoen eskura.

Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)

Euskara Zerbitzua (EGE)

Donostia kalea 1

01010 Gasteiz

D = P x 220.000,00

P

RESOLUCIÓN

23.– La Comisión elevará propuesta de Resolución de la convocatoria de ayudas y el acta de la Comisión al Viceconsejero de Educación, quien dictará y hará pública la resolución oportuna con anterioridad al 5 de diciembre de 2009, indicando la relación de beneficiarios, las cantidades a percibir, las solicitudes denegadas y las causas de exclusión.

En caso de que no se dicte Resolución expresa dentro del plazo citado, deberá entenderse que la solicitud ha sido denegada. El órgano competente, sea cual sea, deberá resolver de forma expresa.

Dicha Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes contado desde el día de su publicación.

ABONO DE LA AYUDA Y JUSTIFICACIÓN

24.– La ayuda se abonará con carácter previo y en un único pago, y se tramitará una vez publicada la Resolución. Si transcurridos diez días desde la recepción de la notificación de la concesión de la subvención el beneficiario no ha manifestado renuncia expresa de la citada subvención, ésta se entenderá aceptada.

25.– Los centros beneficiarios de ayudas deberán remitir, con anterioridad al 30 de junio de 2010, los documentos que a continuación se especifican, bien a la dirección abajo indicada bien a cualquiera de las dependencias administrativas establecidas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común:

a) El cuestionario correspondiente a las Estancias de Afianzamiento Idiomático, indicando la valoración y los resultados. Para ello se cumplimentará el modelo impreso remitido a los centros junto con la notificación.

b) Factura(s) original(es) de la(s) residencia(s) donde se ha(n) llevado a cabo la(s) estancia(s), o las copias compulsadas de las mismas. En el caso de los centros públicos, bastará con el envío del impreso de solicitud, y las facturas se guardarán en el propio centro a disposición de los órganos administrativos de control económico.

Gobierno Vasco (Departamento de Educación, Universidades e Investigación).

Servicio de Euskara (EGE).

C/ Donostia-San Sebastián, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

26.– Ikastetxeren batek laguntza jaso eta ekimena aurrera eraman ez edota baldintzaren bat bete gabe utziko balu, laguntza itzuli egin beharko du, 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak arautzen duen bezala eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (92-2-7ko EHAA) zehaztutako prozeduraren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusira.

27.– Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere diru-laguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko ebazpena alda daiteke. Horretarako, beharrezkoa den likidazio-ebazpena emango du Hezkuntza sailburuordeak eta horren bidez berregokitu egingo dira emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

28.– Deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzen inguruan Ekonomia Kontrolerako Bulegoak edota Euskal Herriko Kontu Epaitegiak bere egitekoak betez eska dezan edozein informazio eskaintzera behartuta dago laguntza jasotzailea.

BATERAGARRITASUNA

29.– Ikastetxeak ekimen honetarako beste erakunderen baten diru-laguntza jaso badu edo jasotzekoa badu, horren azalpen zehatza egin beharko du. Edozein modutan ere, diru-laguntzen baturak ezingo du gainditu gastuaren % 100a. Hau gertatuko balitz, dagokion neurrian gutxituko litzateke deialdi honetan legokiokeen diru-laguntza.

26.– En caso de que algún centro no realice la actividad objeto de ayuda o no cumpla con alguna de las bases, deberá reintegrar la subvención a la Tesorería General del País Vasco, según lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, de Regulación del Régimen de Subvenciones y Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco; y en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, mediante el procedimiento estipulado por el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre (BOPV del 07-02-1992).

27.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de la concesión de subvenciones. A estos efectos el Viceconsejero de Educación dictará la oportuna Resolución de liquidación en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

28.– El beneficiario de las ayudas estará obligado a facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas cuanta información le sea requerida respecto a las subvenciones de esta convocatoria.

COMPATIBILIDAD

29.– En el caso de que el centro haya recibido o vaya a recibir una subvención para esta iniciativa por parte de otro organismo, deberá realizar una descripción detallada de la misma. En ningún caso la suma de las dos subvenciones podrá superar el 100% del gasto, en cuyo caso se procederá a la oportuna reducción de la subvención correspondiente a la presente convocatoria.

2009-2010 IKASTURTEKO
EUSKAL GIROTZE EGONALDIETARAKO (EGE)
LAGUNTZA ESKABIDEA (1)

IKASTETXEAREN DATUAK
Izena:.....
Herria:.....Tf.: Ikastetxe publikoa ☐ Ikastetxe pribatua ☐
Gaiaren arduradunaren izen-abizenak: Ikastetxearen kodea ⌊⌊⌊⌊⌊⌊

IKASGEL(AR)EN ETA EGONALDI(AR)EN DATUAK ETA AURREKONTUA

Maila/gela	Eredua	Irakasle arduradunaren izen-abizenak	Egoitza	(2) A/B/G N/I /X	(3) Egonaldiaren izaera A/B	(4) EGE MALETA	Egonaldiaren datak	Gau kop.	Egoiliar kopurua	Taldearen gastuak guztira
						☐				
						☐				
						☐				
						☐				
						☐				
Gastuak guztira										

EKIMEN HONETARAKO BESTE ERAKUNDE BATEN ESKUTIK BESTELAKO LAGUNTZARIK JASO DUGU

Ez ☐ Bai ☐ Zenbat: € Nondik:.....

(1) Ikastetxe bakoitzak eskabide orri bakarra aurkez dezake. Erantsita aurkeztu behar d(ir)a, ezinbestean, egoitzak/ek egonaldi jakin horretarako/horietarako propio luzatutako egonaldi aurrekontua(k) (Ikus 12. oinarri-araua)
(2) A=Araba, B=Bizkaia, G=Gipuzkoa, N=Nafarroa, I=Iparraldea, X= Beste nonbait
(3) A= Erakunde edo Talde batek antolatu eta diseinatutako egonaldia da. B= Ikastetxeak aterpearen erreserba soila egin du. Antolakuntza osoa ikastetxearen esku dago.
(4) LMHko 3., 4., 5. edo 6. edo DBHko 1. edo 2. mailako talde batekin deialdi honetako eskaintza (EGE maleta: TXAN-GO, JOAN ZAKU edo ERDU) baliatzeko konpromisoa hartzen baduzu, jar ezazu X dagokion laukian.

Zuzendariaren sinadura Ikastetxearen zigilua eta titularraren sinadura Arduradunaren sinadura

.....(e)n, 2009ko.....aren.....(e)an

EUSKAL GIROTZE EGONALDIAREN PROGRAMA (5) Maila/gela Arduraduna

1.- Egonaldiaren programa laburra.

	1. EGUNA	2. EGUNA	3. EGUNA	4. EGUNA	5. EGUNA
Motibazio saioa					
Goizeko 1. saioa					
Goizeko 2. saioa					
Bazkalordukoak					
Bazkalondoa					
Arratsaldeko 1. saioa					
Arratsaldeko 2. saioa					
Afalordukoak					
Afalondokoak					

2.- Ikastetxeak, egonaldirako erabilera bultzatzeko berariazko programa eratu badu, programaren kopia osoa erantsi behar du ezinbestean.

3.- Ikastetxeko jarraipena. Azaldu egonalditik ikastetxera itzuli ondoren euskararen erabilera ohiturei eusteko zer egingo den:

(5) Ikasgela bat baino gehiago direnean, orrialde honen fotokopiak egin eta, bakoitzeko, honelako orrialde bat bete behar da.

ZINPEKO AITORMENA: eskabide hau sinatzen dugunok zera aitortzen dugu: sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik ez dugula zigor administratibo edo penalik jaso, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea

dela bide inolako debekurik.

EGE (Euskal Girotze Egonaldiak) 2009-2010 GALDEKIZUNA

Ikastetxea Kodea
Herria Lurraldea Tf.

Egoitza Datak
Maila Eredua Ikasle kopurua
Zenbat irakasle? Zenbat monitore?

Arduraduna(k)

ARGIBIDEAK

1.- Galdekizun hau irteera-egonaldiaren arduradunak/ek bete behar du/te. Irteera-egonaldi bakoitzeko galdekizun bakar bat, nahiz eta bertara talde bat baino gehiago joan.

2.- 2010eko ekainaren 30erako bidali behar dira.

- Galdekizun hau oso-osorik beteta, balorazioa eta emaitzak azalduz.
- Faktura bidezko justifikazio-orria. Ikastetxe osoari bakarra dagokio eta gaiaren arduradunak bete behar du. Honi erantsita, egonaldia egin den egoitza etxearen jatorrizko faktura(k) edo horien konpultsatutako kopiak helbide honetara: Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza), Euskara Zerbitzua (EGE), Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.
Ikastetxe publikoek nahikoa izango dute egindako gastuen zerrenda edo fakturen fotokopia arruntak bidaltzearekin.

3.- Galdekizunean adierazitakoak osatu nahi izanez gero, egoki jo daitezen materialak ere erants dakizkioke inprimaki honi.

(e)n, 200…ko aren (e)an.

Ikastetxearen zigilua

Zuzendariaren sinadura Arduradunaren sinadura

I.- EGONALDIAREN BALORAZIOA *

Egoitzaren izena .....Herria

I.1.- Azaldu egoitza zenbateraino izan den egokia horrelako programa aurrera eramateko.

I.2.- Eragozpenak egon badira, zehaztu.

I.3.- Janaz eta loaz gain, zer nolako zerbitzuak eskaini dizkizue egoitzak?

I.4.- Egoitzak berak monitoreak ere jarri ditu? Bai ☐ Ez ☐
Baiezkotan, zehaztu eta baloratu zer lan egin duten ikasleekin:
Oso ona ☐ Ona ☐ Hala-holakoa ☐ Eskasa ☐

II.- PROGRAMA

II.1.- Egoitzak berak eskainitako programa: ekintzen laburpena.

II.2.- Ekintzak nola atera dira? Azaldu alde onak, txarrak, zergatiak.

*Egonaldiak egin diren egoitza bakoitzeko honelako orri bat bete behar da.
Behar izanez gero, fotokopiak erabili.

II.3.- Zuk zeuk hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko eraman duzun programa: ekintzen laburpena.

II.4.- Aurrez programatu ziren bezala egin dira ala aldaketekin? Zeintzuk eta zergatik?

II.5.- Nola atera dira? Azaldu alde onak, txarrak, zergatiak.

III.- LORPENAK

III.1.- Ikasleek euskaraz egin dute programan zehar?

	Dena	Asko	Gutxi	Ezer ez
Eskolatik joan zareten irakasleekin	☐	☐	☐	☐
Monitoreekin	☐	☐	☐	☐
Egoitzako langileekin	☐	☐	☐	☐
Beren artean	☐	☐	☐	☐

III.2.- Ikastetxean egin ohi dutenaren aldean:

Askoz gehiago ☐ Gehiago ☐ Berdin ☐ Gutxiago ☐

III.3.- Baloratu erabilera hori eta zergatiak.

III.4.- Azaldu hizkuntzaz aparte zer nolako lorpenak egin diren irteera honetan.

IV.- BALORAZIO OROKORRA

IV.1.- Irakasleok nola baloratu d(it)uzue egonaldia(k) eta emaitzak?

IV.2.- Ikasleek nola bizi izan d(it)u(z)te egonaldia(k)?

IV.3.- Gurasoek nola ikusten dituzte honelako egonaldiak?

IV.4.- Ikastetxean nola hartzen dira era honetako irteera-egonaldiak?

IV.5.- Ekintza hau erabilera sustatzeko programa zabal eta osatu baten zati integratua da ala ekintza isolatua? Eman azalpenak.

V.- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK eta EGE DEIALDIA

V.1.- Ezagutzen al dituzue Euskal Girotze Barnetegiak?

Alkiza Ez ☐ Bai ☐ Bertan egonak zarete? Ez ☐ Bai ☐
Baloratu
Plentzia Ez ☐ Bai ☐ Bertan egonak zarete? Ez ☐ Bai ☐
Baloratu
Espejo Ez ☐ Bai ☐ Bertan egonak zarete? Ez ☐ Bai ☐
Baloratu
Elgoibar Ez ☐ Bai ☐ Bertan egonak zarete? Ez ☐ Bai ☐
Baloratu
Segura Ez ☐ Bai ☐ Bertan egonak zarete? Ez ☐ Bai ☐
Baloratu

V.2.- Egin itzazu hemen Euskal Girotze Barnetegiak hobetzeko proposamen zehatzak.

V.2.- Egin itzazu hemen laguntza deialdi hau (EGE) hobetzeko proposamen zehatzak.